

EXFIBAR 2011

*XLII. Seilu erakusketa
XLII Exposición Filatélica*



**MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA
EIBAR**





ASOCIACION FILATELICA ARRATE ARRATE FILATELDI ELKARTEA

Email: luismariado@euskalnet.net
Apartado, 33
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

BATZORDE ANTOLATZAILEA • COMISIÓN ORGANIZADORA

PRESIDENTEA / PRESIDENTE:	<i>Fidel Saéz Aguinaga</i>
IDAZKARIA / SECRETARIO:	<i>Juan Gómez Barranco</i>
DIRUZAINA / TESORERO:	<i>Alberto Elizondo Retolaza</i>
HARREMAN ARDURADUNA / RELACIONES PÚBLICAS:	<i>Diego Aguilar Verdejo</i>
ERAKUSKETAREN BOKALA / VOCAL DE EXPOSICIÓN:	<i>Jenaro Escibano</i>
MONTAJEA / MONTAJE:	<i>Isidro Rejo Lorenzo Luis M^a Domínguez Gallo</i>

2011ko azaroaren 27tik abenduaren 4ra

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 18:00-20:00
Larunbata eta igandea: 12:00-14:00, 18:00-20:00
 Azaroaren 30ean itxita

del 27 de Noviembre al 4 de diciembre de 2011

Horario:

De lunes a viernes: 18:00-20:00
Sábado y domingo: 12:00-14:00, 18:00-20:00
 30 de noviembre cerrado

Exibiar 2011 • XLII. seilu erakusketa

JATORRIZKO ZIGILU-MARKA
MATASELLO ORIGINAL DE

José Ángel López



Horario del matasello
Día 24: 12:00-14:00 h 18:00-20:00 h.

SELLO



Eufibar 2011 • XLII. seilu erakusketa

MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA ARMAGINTZA MUSEOA

Primeros pasos

El Museo de Armas de Eibar, paralelamente a la Escuela Armería, fue ideado por un grupo de eibarreses a principios del siglo XX. Estos visionarios intuyeron la necesidad de impulsar la industria armera con un centro de formación especializado donde los nuevos armeros adquirieran los fundamentos teóricos y prácticos del oficio y conocimientos sobre nuevas tecnologías; así como un Museo que fuera una herramienta pedagógica, además de un escaparate de la evolución adquirida por la industria eibarresa.

Hasierako urratsak

Eibarko Arma Museoa XX. mende hasierako eibartar talde batek abiarazi zuen Armeria Eskolarekin batera. Ameslari haien armagintzari bultzada bat emateko premia ikusi zuten eta horretarako propio prestakuntza-eskola bat sortu zuten. Hartara, armagintza ofizioaren oinarri teorikoak eta praktikoak eskuratuko zituzten, teknologia berrien inguruko ezaguera jasoko zuten. Horrekin batera, Eibarko industriak lortutako aurrerabidearen erakusleihoa eta erreminta pedagogiko izan zedin legez Museoa ere egin zuten.





Por ello comenzaron a realizar viajes a Barcelona, Berlín... y fue el concejal Pedro Goenaga, al asistir a un Congreso de Bancos de Prueba en Lieja, quien conoció la experiencia de l'École d'Armurerie Leon Mignon y vio en ella el modelo de escuela que se adaptaba a las necesidades de los armeros eibarreses.

El edificio de la Escuela Armería, que también albergaba un museo, el Museo de Armería, fue inaugurado el 24 de junio de 1914. En esas mismas fechas se editó el primer catálogo: Inauguración del Museo de Armería de la Villa de Eibar.

Asmo hori gauzatzearen hasi ziren Bartzelonara, Berlinera eta beste hainbat lekutara joaten. Pedro Goenaga zinegotzia izan zen Liegèn antolatutako Arma-probatokien Kongresu batera joan eta hango École d'Armurerie Leon Mignon ezagututa, Eibarko armaginen premietara egokitzen zen eskola-eredua hura zela ikusi zuena.

Armeria Eskolaren eraikina, Arma-gintzaren Museoa zuena, 1914ko ekainaren 24an inauguratu zen. Sasoi hartakoa da museoaren gainean argitaratu den lehenengo katalogoa, Inauguración del Museo de Armería de la Villa de Eibar izenekoa.



La colección del Museo de Armería de Eibar contaba entonces con 580 armas de fuego cortas y largas, y seis modelos de armas blancas, que procedían de donaciones de los fabricantes de la localidad, del Banco de Pruebas, de particulares, y del entonces Ministerio de la Guerra. En la misma sala se exhibían los trabajos realizados por los alumnos de la Escuela de Armería.

Tras su creación, la colección fue enriquecida con modelos de armas que se fabricaron en Eibar durante la Gran Guerra, conseguidas a este fin por Julián Echeverría –uno de los primeros directores de la Escuela y uno de los

Eibarko Armeria Eskolaren Museoak 580 arma zituen orduan, arma luzeak eta arma motzak, baita arma zuriko sei modelo ezberdin ere. Arma horiek guztiek herriko fabrikanteek emandakoak ziren, Arma Probatokikoak, partikularrak eta orduko Gerra Ministerioak emandakoak. Arma-bildumarekin batera, Armeria Eskolako ikasleek egin-dako lanak ere bazeuden gela berean.

Museoa sortu ondoren bilduma aberasten joan zen Lehen Mundu Gerran Eibarren egin ziren arma guztien era-kuskari banarekin, Julián Echeverriak, Armeria Eskolaren zuzendariaik esjuratutakoak. Esan behar da, lehe-

grandes nombres de su historia- colección que no fue reflejada en ningún catálogo ya que la colección fue saqueada con anterioridad a su catalogación. Con motivo de la *Exposición Internacional de París de 1937*, oficialmente Exposición General de segunda categoría de París, del 25 de mayo al 25 de noviembre. La exposición se llevó a cabo bajo el lema bajo el lema "Artes y técnicas de la vida moderna" una muestra de la colección eibarresa partió a París, pero el comienzo de la Guerra Civil impidió que la muestra regresara a su lugar de origen.

nengo zuzendaria ez zela Echeverria izan, baina bera da Eskolak historian zehar eman duen izen handienetako bat. Hala ere, arma-bilduma aberastu hori ez zen inongo katalogotan islatu, katalogatu aurretik arma asko ostu zirelako. Parisen, 1937ko maiatzaren 25etik azaroaren 25era, "Arteak eta teknikak bizimodu modernoa" lemapean egin zen. Nazioarteko Era-kusketa, Eibarko arma-bildumaren erakuskari bat bidali zen, baina, gerratea hasi zenez, hara eramandako armak ez ziren bueltatu.



Posguerra

Pasados los años de posguerra y reconstrucción del país, el estado del museo hacia 1960 era lamentable. El primitivo museo había quedado prácticamente diezmado. Sus más valiosas armas habían desaparecido y las que permanecían en la Escuela se hallaban retiradas en parte, salvo una reducida cantidad, que fue colocada en nuevas vitrinas en espera de un nuevo impulso. Una actuación que llevó a cabo el entonces Director del Centro, José Ormaechea, tras la culminación de las obras de ampliación de la Escuela Armería.

Gerraostea

Gerraostean, herria berriro jasotzen emandako urte latz haien ondoren, 1960. urtearen inguruan Museoa modu penagarrian zegoen. Hasierako museo hura zeharo txikituta zegoen; arma baliotsuenak desagertuta; Eskolan geratzen zirenak baztertuta. Oso gutxi ziren erakusmahai berri batzuetan jarri ziren armak, museoa nork biziberri-tuko zain. José Ormaechea eskolaren zuzendaria izan zen, Armeria Eskola handitu ondoren Museoa osatu eta goitik behera eraberritu zuena .



Exfibar 2011 • XLII. seilu erakusketa

En octubre de 1961, Ormaechea convocó una reunión con antiguos fabricantes de armas eibarreses, a fin de constituir una comisión que se ocupara de la reorganización y ampliación del Museo de Armas. En este primer y fundamental contacto, el Director solicitó a los reunidos su colaboración en el ambicioso proyecto de convertir el Museo de Armas Antiguas en uno de los más completos del país, buscando las armas que faltaban y tratando de conseguir asimismo nuevas piezas. La reacción fue unánime y la comisión quedó constituida de la siguiente manera: Presidente: Eulogio Gárate, Secretario: Jerónimo Echeverría, Vocales: Paciano Arosa, Jesús Charola, José Echeverría, Vicente Baroja, Manuel Iturriastillo, José Ormaechea.

En una primera etapa se dirigieron por carta a los diversos Regimientos y Parques de Artillería del país solicitando armas antiguas junto al historial

Ormaecheak, 1961eko urrian, bilera baterako deia luzatu zien Eibarko ar- magin zahar guztiei Arma Museoa be- rrantolatzeko eta handitzeko ardura hartuko zuen batzorde bat eratzeko as- moz. Lehen hartu-eman garrantzizko hartan, Armeria Eskolako zuzendariak han bildutako guztiei lagunza eska- tu zien Antzinako Arma Museo hura Espainiako onenetakoa eta osatuena izan zedin, Museoan falta ziren arma guztiak bilatu eta batu eta beste arma berri batzuk lor zitzaten. Eman zioten erantzuna aho batekoa eta berehalakoa izan zenez segituan eratu zen batzordea: Eulogio Gárate batzordeburu; Jerónimo Echeverría idazkari; Paciano Arosa, Jesus Charola, Jose Echeve- rría, Vicente Baroja, Manuel Iturri- castillo eta José Ormaechea bokal.

Hasieran, Erregimentu eta Artilleria Parke guztiei idatzi zieten, arma za- harak eta arma bakoitzaren historia eta jatorriaren berri emateko eska-



y origen de las mismas. Se giraron visitas a varias empresas armeras solicitando su colaboración y se acordó investigar los distintos procesos de fabricación de armas antiguas. La muestra aumentó con nuevas vitrinas y armas restauradas que habían sido retiradas años atrás junto con fotografías de armas antiguas. Además, fueron importantes los contactos que se mantuvieron con el Ministerio de Defensa y el Ejército en la ampliación de la colección.

Destaca también la participación del armero José de Uria en la recuperación de las 43 armas, que habiendo sido enviadas a París para la Exposición Internacional de París en 1937, no regresaron a Eibar debido a los avatares de la guerra.

tzen. Arma-enpresak bisitatu zituzten laguntza bila; arma zaharren fabrikazio-prozesu guztia ikertzea erabaki zen. Erakusmahai berriak ipini ziren ikusgai; baztertuta zeuden arma zaharrak zaharberritu eta erakutsi egin ziren arma zaharren argazkiekin lagunduta. Defentsa Ministerioarekin eta Ejertzitoarekin hartu-eman handia eduki zuten bilduma aberastearren.

Parisera 1937. urtean egin zen Nazioarteko Erakusketara bidali eta gerrateagatik Eibarrera itzuli ez ziren 43 arma haien berreskuratzerako José de Uria armaginak egin zuen lana azpimarratu behar da.



Nuevo impulso 1962-1984

Hacia 1962, el cincuentenario de la fundación del centro se convirtió en impulsor de los afanes de la Comisión de Armeros y la Dirección de la Escuela a cargo de José Ormaechea por consolidar el Museo. Se integró en la comisión el Director del Banco de Pruebas Carlos Ruiz, que continuaba la colaboración de su antecesor José Junquera Quintía.

Bultzakada: 1962-1984

Armaginen Batzordeak eta José Ormaechea Eskolako Zuzendariak, 1962.urtea hartu zuten -Armeria Eskolaren 50.urteurrenarena- Museoa finkatzeko eta sendotzeko urtetzat . Arma Probatokiaren zuzendaria, Carlos Ruiz, Batzordean sartu zen laguntzera, bere aurretik kargu hartzan egon zen Jose Junquera Quintiaren bidea jarraituta.



Se dirigieron cartas a las principales Armerías de España, etc. solicitando armas antiguas obteniéndose valiosas informaciones y ofertas, así como a di-

Espainiako armategi garrantzizkoenei gutunak bidali zitzazkien arma zaharrak eskatzen. Modu horretan balio handiko informazioa eskuratzeaz gain

versos mandatarios de la época: Hassan de Marruecos, presidente Bourguiba de Túnez, Kasen de Irak, Presidente Nasser de Egipto, Husein de Jordania, etc.

Las empresas armeras como Armas Bost, Victor Sarasqueta, Star-Bonifacio Echeverria, Astra Unceta y Compañía, Gabilondo, etc. donaron algunas armas de sus producciones más recientes. El rey de Arabia Saudita también contribuyó al aumento de la colección con cuatro fusiles. Tras cuatro años de intenso trabajo el museo quedó organizado.

Coincidiendo con el 50 aniversario, se edita el segundo catálogo con diversos artículos relacionados con las armas aparte de un minucioso inventario e historial de armas existentes en el museo.

jaso ziren eskaintzak benetan onak izan ziren. Sasoi hartako agintari askok jaso zuten eskabidea: Marokoko Hassan erregeak; Tunisiako Burguiba presidenteak; Irakeko Karim Qassim presidenteak, Egiptoko Nasser presidenteak, Jordaniako Hussein erregeak...

Arma-fabrikek ere -Armas Bost, Victor Sarasqueta, Star-Bonifacio Echeverria, Astra Unceta y Compañía, Gabilondo...- arma egin berri batzuk Museoaren esku utzi zituzten. Arabia Saudíko erregeak ere lagundu zuen bilduma aberasten eta lau fusil oparitu zituen. Lau urteren buruan, lan demasia egin ondoren, Museoa antolatuta geratu zen.

Bigarren katalogoa 50. urteurrenarekin batera atera zen, armekin zerikusia edo lotura zuten hainbat idazkirekin eta museoan zeuden arma guztien in-



Desde entonces numerosas personalidades han visitado nuestro museo.

Agotados los catálogos de Armas antiguas editados en 1914 y 1964 ,en 1984 se publicó uno nuevo. Intervinieron en su confección, Juan Luis Calvó- experto en armas antiguas- Juan San Martín que hizo el prólogo, Ramiro Larrañaga, investigador de la historia armera, y Antonio Aguirresarobe como fotógrafo de las piezas. Este catálogo fue subvencionado por la Diputación Foral de Guipúzcoa.

Mirando al futuro

El museo tuvo su sede en la Escuela de Armería que gestionó y custodió la colección hasta el año 2000, año en el que fue donada al Ayuntamiento de Eibar. Como consecuencia de la donación tuvo lugar la exposición “Armian Animia”, celebrada en la sala de exposiciones de Portalea en diciembre del año 2000, que gozó de una exitosa acogida.


Con el fin de engrosar la colección de armas tanto en cantidad como en calidad, en el año 2007 el Ayuntamiento de Eibar compró el fondo de armas de la fábrica Star, Bonifacio Echeverría S.A., para así completar con nuevas piezas la colección municipal. Hoy en día entre las donaciones, y compras de armas, el Ayuntamiento posee un fondo de 1000 ejemplares.



bentario eta historial zehatzaz hornitua.

Orrutik hona asko izan dira museoak jaso dituen bisitari ospetsuak.

Katalogo berri bat atera zen 1984.urtean, 1914. urtean eta 1964. urtean argitaratutako katalogoak agortuta baitzeuden, Juan Luis Calvók -arma zaharretan aditu handia- Ramiro Larrañaga armagintzaren historia ikerlari ahantzezinarekin batera egindakoa. Argazkiak Antonio Aguirresaroberenak ziren. Hitzaurrea Juan San Martínen zen. Gipuzkoako Foru Aldundiak



El 18 de enero de 2007 se abre el actual museo con la inauguración de las salas dedicadas a las armas. La apertura del resto de espacios que hoy en día conforman el museo se realiza el 13 de mayo de 2009.

Actualmente el Museo de la Industria Armera es un equipamiento museístico de carácter municipal que ocupa los 1200 metros cuadrados de la quinta planta del edificio de Portalea, de los cuales 1000 metros cuadrados están dedicados a espacio expositivo. El edificio fue la antigua fábrica de armas Aguirre y Aranzabal (A.Y.A.), y está situado en el centro de la ciudad.

diruz lagundu zuen katalogoaren ar-gitalpena.

Etorkizunari begira

Museoaren egoitza Armeria Eskola bera zen; Eskolak kudeatu eta zaindu zuen arma-bilduma hura harik eta 2000. urtean Eibarko udalari donatuzion arte. Dohaintza egin ondoren, udalak, 2002ko abenduan, "Armian Animia" erakusketa antolatu zuen Portaleko erakusketa-aretoan, arrakasta handikoa.

Arma-bilduma osatzearren, Udalak, 2007. urtean Star, Bonifacio Echeverria SAren arma-funtsa erosi zuen udal bilduma osatu ahal izateko. Gaur egun, egindako erosketak eta dohaintzak


La extensa colección de armas y una gran variedad de productos fabricados en Eibar (bicicletas, motos, máquinas de coser) conforman el eje central del Museo. Su principal objetivo es la conservación y difusión de la memoria histórica y el patrimonio industrial de un pueblo de gran tradición armadera, ofreciendo al visitante, un recorrido por el devenir de la historia industrial eibarresa, desde el siglo XIV hasta nuestros días.

kontuan hartuta, udalak 1000 arma inguru ditu.

2007ko urtarrilaren 18an zabaldu zen Museoa; orduan armagintzari zuendutako aretoak inauguru ziren. Museoaren gainerako aretoak edo lekuak 2009ko maiatzaren 13an zabaldu ziren.

Gaur egun, Armagintzaren Museoa udalaren ekipamendu bat da, Portaleko bosgarren solairuan 1200 metro karratu hartzen dituena, horietatik 1000 dira erakusketak hartzentituen metroak. Eraikina, antzina, AYA, Aguirre y Aranzabal, arma-fabrika ezaguena izan zen.





Casa de Cultura Portalea Portalea Kultura Etxea

El edificio en el que se ubica el Museo de Eibar es la Casa de Cultura Portalea. Se encuentra situado en el centro del casco urbano, cercano a la Iglesia de San Andrés, en la calle Bista Eder nº 10.

El edificio Portalea corresponde en origen a la antigua fábrica de escopetas Aguirre y Aranzabal "A.Y.A.", que ya en 1914 contaba con 8 operarios.

El edificio, muy característico de Eibar, presenta una tipología industrial racionalista, se erige en varias alturas. Fue proyectado por el arquitecto municipal Raimundo Alberdi y Abaunz en 1926 y construido a finales de la década de los 30. En 1951 se iniciaron suce-

Eibarko Museoa **Portalea kultura etxe-an** dago. Eraikin hori herri barruan dago, San Andres elizatik gertu, Bista Eder kaleko 10ean.

Izatez, **Portalea** eraikina, antzina, Aguirre y Aranzabal eskopeta-fabrika zaharra bera da, "A.Y.A.", 1914. urtean 8 behargin zituen.

Eraikinak, Eibarren oso arrunta den industria-tipología arrazionalista du eta hainbat solairu ditu. Raimundo Alberdi y Abaunz udal arkitektoak egin zuen proiektaua, udalak, 1938ko irailaren 17an onetsi ondoren hasi zen eraikina jasotzen. 1951ean fabrika handitu egin zen; 1960. urte inguruan

sivas obras de ampliación del edificio que finalizaron hacia 1960, año en el que el taller quedó levantado tal y como se encuentra ahora.

Tras la guerra civil, en 1940, la empresa se instaló en este edificio y lo ocupó hasta mediados de la década de los ochenta que pasó a ser propiedad municipal.

A.Y.A. adoptó como símbolo gráfico un león, símbolo que se puede contemplar en la fachada principal, junto al año 1996, fecha en la que fue rehabilitado e inaugurado como Casa de Cultura pasando a denominarse Portalea.

El nombre Portalea tiene su origen en una puerta de acceso a Eibar, que, desde principios de la Edad Moderna hasta bien entrado el siglo XX, se encontraba situada en las proximidades de la actual Casa de Cultura. Esta puerta era, a buen seguro, la entrada y salida de mercancías por Elgeta, hacia y desde Castilla. Tal y como aparece reflejado en documentos antiguos, dicho acceso era conocido por los eibarreses como "Portal" o "Portala". Debido a la cercanía del edificio respecto al antiguo enclave de este portón, la Casa de Cultura recibe el nombre de Portalea.

La casa de Cultura acoge diferentes servicios culturales: una sala de exposiciones de 700m² y una sala de conferencias con capacidad de 113 butacas, salas de reuniones y talleres, entre otros.

El Museo se ubica en la 5^a planta del edificio y ocupa una superficie de 1200m².

Egin ziren hango azken obrak: horixe da gaur egun ezagutzen dugun eraikina.

Gerraostean, 1940. urtean, A.Y.A. enpresa eraikin horretan kokatu zen eta laurogeigarren hamarraldira arte egon zen bertan. Udalak 1988. urtean erosiz zuen.

A.Y.A. enpresak lehoiaren irudia hartu zuen ikurtzat. Fatxada nagusian dago "1996" urtea seinalatuta dagoen lekuaren ondoan. Urte hartan, udalak, eraikina goitik behera berriztatu eta **Portalea Kultura Etxea** atondu zuen.

Kultura Etxeak hainbat kultura zerbitzu hartzen ditu: 700 m²ko erakusketa-aretoa, hitzaldi-aretoa, 113 jarlekukoa, bilera-gelak, tailerrak...

Museoa 5. solairuan dago, 1200 m² ditu.



INDUSTRIA ARMERA ARMAGINTZA

La primera noticia concreta que demuestra la existencia de la industria armada en Eibar, nos la proporciona, bien escuetamente, José Arantegui al escribir que en 1538 se encargaron quince mil arcabuces a Juan Orbea y Juan Ermua, de Eibar. 1570: Francisco Ibarra, hijo ilustre de Eibar, fundó los primeros rudimentos de la industria armada belga. 1573: se crea en Placencia la Real fábrica de armas. El año 1601

Eibarko armagintzaren berri ematen digun aurreneko albistea 1538. urtean Jose Arantegui ematen diguna da, Eibarko Juan Orbea eta Juan Hermuari hamabost mila arkabuzen enkargua egin zitzaiela dioskun agiria. 1570. urtean, Francisco Ibarra herriko seme ospetsuak armagintzaren aurreneko urratsak eman zituen Belgika aldean. 1573. urtean Soraluzen, armen Erret fabrika jaso zuten. 1601eko agiri baten





dice el Ayuntamiento de la citada villa que ninguno traiga al alarde arcabuz de chispa ni de pedernal, sino arcabuz de munición con cuerda y forma propia para la guerra, lo cual parece indicar que el arcabuz de chispa y el de pedernal eran ya anticuados. El año 1621 contaba Eibar con un almacén para depositar las armas labradas por los vecinos de la villa, y porque el Capitán Jerónimo de Aybar, veedor de la fábrica de armas de S.M. obligaba a los oficiales de la misma a que las llevasen a Placencia, causando con ello la extorsión consiguiente a los vecinos,

azaltzen denez, Soraluzeko udalak ez zuen uzten alardera txispadun edo harridun arkabuzik eramatzen, alardera eramatekoak munizionzkoak izan behar zirela-eta. Dirudienez, ordurako, zaharkituta geratu ziren txispadunak. 1621. urtean Eibarrek bazuen biltegi bat herrikoek landutako armak gordetzeke; gainera, Jerónimo de Aybar kapitainak, erregeren arma-fabrikanen hornitzaleak, arma guztiak Soraluzera eramatea agintzen zuen eta herriko jendeari hara eramateak era gozpenak sortzen zizkion. Horren aurrean, Eibarko udalak, hauxe eskatu

el Ayuntamiento acordó pedir que cada vez que el citado Capitán hubiese de probar y examinar las armas de munición de S.M., viniese a Eibar a hacer la prueba y examen de las mismas, a fin de que fuesen depositadas en el mencionado almacén, y no en Placencia. Eibar tiene en 1747 la cantidad de 400 vecinos, de los cuales, 132 eran maestros y oficiales que trabajaban para el Real servicio de armas de Placencia. Destruida Eibar en 1794 y habiendo creado el gobierno dos fábricas de armas en Asturias, la fabricación de las mismos fue casi nula durante 40 años. Entre los años 1834/44 se reintegran los eibarreses a la paz de su trabajo y fundan nuevas fábricas de ar-

zuen: kapitain hura erregeren armak probatzera eterri behar zenean, Eibarrera etor zedila, arma guztiak herriko biltegian gorde ahal izateko eta Soraluzera joan beharrik ez izateko. Eibarrek 1747. urtean 400 biztanle zituen, horietatik 132, Soraluzeko Erret Fabrikaren zerbitzura zeuden arma-maisuak eta ofizialak. 1794. urtean, Eibar suntsituta geratu zen. Gobernuak, Asturiasen arma-fabrika bi jaso zituenez, 40 urtez ia ez zen armariak fabrikatu herrian. 1834/44 urte bitarte horretan eibartarrek lehengo bideari segitu zioten eta hiru arma-fabrika berri jaso zituzten. 1985ean, Eibarren, sei tiroko lehenengo errebolber zilindrikoa egin zen. Manuel Garate izan zen arma ho-





mas; año 1835: se construye en Eibar el primer revólver cilíndrico de seis tiros, siendo su autor Manuel Gárate, quien revolucionó la técnica de este arma. 1839: Eusebio Zuloaga se establece en Eibar, dedicándose a la fabricación de arcabuces.

Entre las fábricas más importantes de Eibar, figura la de los Sres. Orbea y Compañía. La fundaron el año 1859 los

rren teknika goitik behera berritzu zuen gizona. Eusebio Zuloagak, 1839. urtean, Eibarren jarri zuen alkabuzak egiteko fabrika.

Orbea da Eibarrek izan duen fabrikari handiena. 1859. urtean, Juan Manuel, Mateo eta Casimiro anaiek jaso zuten "Orbea Hnos." izenpean. "Gárate, Anitua y Cia" fabrika Manuel Gáratek jaso zuen. "Victor Sarasqueta,



hermanos D. Juan Manuel, D. Mateo y D. Casimiro, que se constituyeron en sociedad bajo la razón social de "Orbea hermanos".

La fábrica de los Sres. Gárate, Anitua y Compañía, fue fundada por D. Manuel Gárate. El fue quien ideó y primeramente construyó revólveres de seis tiros.

La Sociedad que bajo la razón social de Víctor Sarasqueta, Cortaberría y Compañía, fundaron los Sres. Sarasqueta, D. Francisco Cortaberría y D. José Urizar, quedó establecida en marzo de 1899.

Otros fabricantes de armas son: Arizmendi y Goenaga; Trocaola, Aranzabal e Irazabal; Aguirre, Zamacola y Compañía; Luis Crucelegui; Miguel Anitua; Beristain y Compañía.

Cortaberria y Cia" fabrika, Sarasqueta, Cortaberria eta Jose Urizar jaunek jaso zuten 1899ko martxoan. Arizmendi y Goenaga, Aranzabal e Irazabal, Aguirre Zamacola y Cia, Luis Crucelegui, Miguel Anitua, Beristain y Cía ditugu beste hainbat eta hainbat artean Eibarri izena eta ospea eman dioten arma-fabrikak.

www.armia-eibar.net

*La Asociación Filatélica Arrate quiere
agradecer la colaboración de todos y
cuantos han participado con su apoyo.*

LAGUNTZAILEAK / COLABORAN

*BAR TXOKO
CAJA LABORAL POPULAR
EROSKI
FILATELIA UNAMUNO (BILBAO)
EL CORTE INGLÉS
EXCLUSIVAS GORXIBA
ARCHIVOS DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR
MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA
EGO IBARRA BATZORDEA
EL CORREO
DIARIO VASCO
ARRATE IRRATIA*

HEDABIDEAK LOS MEDIOS INFORMATIVOS

*ETA KITTO
REVISTA EIBAR
RADIO POPULAR DE LOYOLA
RADIO EIBAR (CADENA SER)*

BABESLEAK PATROCINADORES



ANTOLATZAILEA ORGANIZA

